



AGENDA
2030
IBARRA
amesten dugun **herria**

IBARRAKO UDALERRIAK
GARAPEN JASANGARRIKO HELBURUEI EGITEN DIEN
EKARPEN TXOSTENA
DIAGNOSTIKOA

Laburpen exekutiboa

2025 otsaila



Txostenaren idazketan lagundu dute:

IBARRAKO UDALA:

- Igor Zampirain (Alkatea)
- Nagore Zubillaga (zinegotzia)
- Irati Altuna (zinegotzia)
- Ainhoa Alonso (Ingurumen, Nekazaritza eta Merkataritza teknikaria)
- Eider Esnaola (Idazkaria)
- Lourdes Leunda (Diruzaina)
- Lierni Muñoa (kontu-hartzailatza)
- Arantxa pikabea (kontu-hartzailatza)
- Itziar Agirrezabala (Udal arkitektoa)
- Nekane Azurmendi (Kultura eta gazteria teknikaria)
- Ihintza Agirretxe (Euskara eta hezkuntza teknikaria)
- Izaro Ugalde (Euskara eta hezkuntza teknikaria)
- Ana Carrere Zabala (Udal kirol teknikaria)
- Agurtzane Aiestaran (Itzultzailea)
- Xabier Jauregi (Gizarte langilea)
- Xabier Zilbeti (Udaltzainburua)

IBARRAKO ERAGILE EZBERDINAK - ELKARTEAK

- Izaskun Urrestarazu, Mikel Iekuona, Iraia Labaka (Gaztezuloko hezitzaileak) eta herriko nerabe eta gazteak.
- Nerea Garcia, Merkataritza elkarteko koordinatzailea, eta Ibarako merkatariak.
- Izaskun eta Egia auzoko bizilagunak eta Uztularre elkarteko kideak.
- Bizi nahi jubilatuen elkarteko kideak.
- Zartada talde feministako kideak.

Laguntza teknikoa: Laia Koop. Elkarte Txikia eta Izadi 21.



AURKIBIDEA

1. GJH: POBREZIA DESAGERRARAZTEA	4
2. GJH: GOSERIK EZ	5
3. GJH: OSASUNA ETA ONGIZATEA	6
4. GJH: KALITATEZKO HEZKUNTZA	8
5. GJH: GENERO BERDINTASUNA	9
6. GJH: UR GARBIA ETA SANEAMENDUA	10
7. GJH: ENERGIA IRISGARRIA ETA EZ KUTSAGARRIA	11
8. GJH: LAN DUINA ETA HAZKUNDE EKONOMIKOA.....	12
9. GJH: INDUSTRIA, BERRIKUNTZA ETA AZPIEGITURA	13
10. GJH: DESBERDINTASUNAK MURRIZTEA	15
11. GJH: HIRI ETA KOMUNITATE JASANGARRIAK	16
12. GJH: EKOIZPEN ETA KONTSUMO ARDURATSUA	19
13. GJH: KLIMAREN ALDEKO EKINTZA	20
15. GJH: LEHORREKO EKOSISTEMETAKO BIZITZA	21
16. GJH: BAKEA, JUSTIZIA ETA INSTITUZIO SENDOAK.....	22
17. GJH: HELBURUAK LORTZEKO ALIANTZA	23
18. GJH: HIZKUNTZA ETA KULTUR ANIZTASUNA	24

1.



HELBURUA

Pobrezia mota guztiak desagertaraztea.

- Herritarren ekonomia-baliabideei begiratzuz gero, eta zehazki, errenta pertsonalari dagokionean, Ibarra gainontzeko lurraldeekiko egoera ekonomiko baxuagoan kokatzen dela ikusten da, Erkidegoko bataz-bestekoarekin alderatuz 1.500 €-ko aldearekin.
- Errenta pertsonalaren bilakaera gorakorra da eta 2011-2021 artean %14 batean igo da.
- Gizarte Larrialdiko Laguntzak jasotzen dituzten bizikidetz-unitateen kopurua begiratzuz badugu, Ibarra tasa beste lurraldeekiko baxuagoa dela ikusiko dugu. Hala ere bilakaerari begiratzuz eta 2018ko datuekin alderatuz joera gorakorra dela esan daiteke, nahiz eta 2020tik joera aldatu den.
- Diru-sarreraren berme-errentaren onuradunei begiratzuz ere aldea nabarmena da, Ibarra tasa Gipuzkoa eta Erkidegoko lurraldeekiko tasaren azpitik geratzen da eta eskualdekoaren pareko.
- Udalerrian badira gizarte ekintzan, garapenerako lankidetzan eta egoera ekonomiko eta sozial larrian aurkitzen diren herritarren beharrei erantzuten lan egiten duten hainbat elkarte, besteak beste ekimen solidarioak antolatzen: Bizi-nahi erretiratuen elkarte, Gipuzkoako janari bankua, AECC tolosaldea, Gipuzkoako odol emaileak, Izan fundazioa, ATECE, ACABE, Ortzadar elkarte, ACABE, ADAHIGI, Ibarra Karitas elkarte eta Gautena. Ibaratik misio taldeak zehazki lankidetz proiektuak burutzen ditu garapen bidean diren herrialdeetan.
- 2019 urtetik 2020 urtera gizarte zerbitzuen departamentuak laukoiztu egin da departamentuak lantzen dituen espediente kopurua (2018an 204 espediente ziren eta 2020an aldiz 853) eta geroztik mantendu egin da kopuru hori. Gaur egun gizarte langile bat, administrari batek eta bi hezitzaileek osatzen dute Gizarte politikak, politika feminista eta aniztasuna departamentua. Gainera, ILARKI etxez-etxeko zerbitzu azpikontratatzan da.
- Bideratzen diren prestazio ekonomikoei dagokionean Diru-sarreraren berme-errentaren onuradunen kopuruak behera egin du 2028-2023 aldian, aldi berean aldiz GLLa jasotzen duten onuradun kopuruak gora egin du 2020 urtetik.

2.



HELBURUA

Gosea amaitzea, elikagai-segurtasuna eta elikadura hobea lortzea eta nekazaritza jasangarria bultzatzea.

- Ibarrek izaera landatarra badu ere, nekazaritza eta arrantza sektorearen balio erantsi gordina Gipuzkoako ehunekoaren parekoa da, baina eskualdeko eta Erkidegoko lurraldeekiko ehunekoaren azpitik geratzen da.
- Nekazaritzara bideratutako azalera ere baxua da Ibarren, Gipuzkoa eta Erkidegoko azaleren ehunekoekin alderatuta. Lehen sektoreko ENA ustitagei kopurua Ibarren 56koa zen 1999an.
- Landa eremuari dagokionean bi auzo nabarmendu behar ditugu Ibarren, Izaskungo auzoa eta Egialdeko auzoa.
- Udalean ingurumen teknikaria eta zinegotzia arduratzen dira landa garapenez.
- Orohar elikagai produktuen ekoizle gutxi daude herrian eta zehazki ekoizpen ekologikoa egiten duen ustiatetik ez dago Ibarren.
- Iraileko 3. Igandean IBARRA, AZOKA ETA PIPARRA peria antolatzen du Hauspibarra Elkartek Udalaren laguntzarekin (2023an, XXIII. Azoka antolatu zen).
- Eskualde mailan, Tolosaldea Garatzeneko enpresa sailak eskualdeko agro-elikadura arloko enpresa ezberdinen arteko lankidetzatik sor daitezkeen aukerak identifikatzen saiatzeko proiektu bat diseinatu du.
- 2020an, Elikadura xahuketaren arloan “Tolosaldeko lehen hezkuntzako eskoletako jantokien egoeraren analisia, xahututako elikagaien estimazioa eta alternatiben azterketa” egin zen, Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin.
- Tolosaldeko landa garapeneko proiektuak bultzatzeko eta gizarte ehuna landa garapeneko jardueretik sentikor bilakatzeko lan egiten duen elkarte da Tolomendi Landa Garapen Elkarte. Elkartearen helburuetako bat Nekazaritzako elikagaien produkzioa eta eraldakuntzan eragitea da.
- Tolomendik Tolosaldeko landa komunitateen garapen programa (2025-2030) osatu behar du 2024 urtean. Aipagarria da, 2022an Tolomendik Ibarren abian jarri zuen AUZOLANGIN(L)TZA jardunaldia. Bertan, auzolan kontzeptua birdifinitzen saiatu ziren, ateak irekiz herrigintzako hainbat lani, herriko jaiak antolatzeko batzordeei, etab. Orohar boluntario lanei garrantzia emanez.

3.



HELBURUA

Guztiontzako eta adin guztietan bizimodu osasungarria bermatzea eta ongizatea sustatzea.

- Gabezia sozioekonomikoaren egoerak neurtzen dituen MEDEA indizearen arabera, erdi-mailako egoera batean aurkitzen da Ibarra (5eko indize eskalatik 3 bat jaso du, 2021). Auzoka, esan daiteke herrigunean egoera sozioekonomikoa zerbait jaisten dela (2 indizea du), Izaskungo landa-eremuaren aldean (3 indizea du eremu honek). Egialdek aldiz indize altuagoa erakusten du (4 indizea) egoera sozioekonomiko hobea erakutsiz.
- Izaskungo landa-eremuan hilkortasun arriskuaren tasa handiagoak topatzen ditugu emakumezkoetan. Hirigunean eta Egialde auzoan alderantziz gertatzen da, gizonezkoen hilkortasun-tasak gainera gainetik kokatzen dira.
- Emakumezkoen nahiz gizonezkoen bizi itxaropenak 2001-2017 artean gora egin duela esan daiteke. Emakumezkoetan 82 urtetik 86 urtera eta gizonezkoen kasuan 78 urtetik 79 urtera.
- Ibarran 75 urte eta gehiagoko biztanleen ehunekoa beste lurraldeekin alderatuta handiagoa da. Eskualdeko batz bestekoarekiko 3 puntutan handiagoa. Gainera denboran ehuneko hau areagotu da, 2010eko % 7,13-tik 2023ko % 12,73-ra. Ibarra gizartea zaharkitzen ari dela esan daiteke eta honek menpekotasun egoerak ekarriko ditu.
- Ibarran osasunari lotutako ekipamendu eta zerbitzu sanitario hauek daude: Osakidetzak kudeatzen duen Ibarra Osasun zentrua eta eskualdeko erreferentziako Asunción Klinika.
- Eusko Jaurlaritzako airearen kalitatea zaindu eta kontrolatzeko sarearen estazioa Martin Jose Iraola kalean dago eta neurtutako kutsatzaileen arabera, Tolosaldeko airearen kalitatea OSO ONA da. Airearen kalitate "oso ona", "ona" edo "hobetu daitekeena" duten urteko egunen ehunekoa % 94koa izan zen 2023ean, eta % 92-97koa izan da azken 4 urteetan.
- Kirol kultura txertatuta dago Ibarra herritar askoren bizi ohituretan eta Udaletik hainbat kirol ikastaro antolatzen dira eta kirol Orientazio Zerbitzua ere bada.
- Ibarra Belabietako Kiroldegia du eta kiroldegiko bazkide kopurua 342-koa izan da 2023an eta momentuz 338-koa 2024 urtean zehar. Ikastaroei dagokionean 2023-2024 kurtsuan 166 pertsonak jaso dute.
- Udalak kirol teknikaria du gaur egun. Honen arabera, kiroldegiko bazkidetzaren zein ikastaroen kudeaketa hobetu egin behar da. Prozesu administratiboa oso burokratiko da bai herritarrentzat baita udal langileentzat, altak-bajak ez baitira kiroldegian zuzenean kudeatzen. Honek zaildu egiten du edozein tramitazio.

- Urtean zehar hainbat kirol ikastaro antolatzen dira eta bestalde, Kirol Orientazio Zerbitzua ere eskaintzen da Udaletik.
- Bitaka enpresak mugikortasunaren gainean eginiko diagnostikotik abiatuta jarduera proposamen batzuk jasotzen ditu “Mugikortasun iraunkorraren 2009 plana” txostenean. Mugikortasunaren diagnostikoan hainbat arazo detektatu ziren, besteak beste bide-segurtasunaren ikuspegitik, aparkalekuetan, etab. Jarduera-proposamenak honako arloen gainean egiten dira: Ibilgailu pribatuen zirkulazioa, oinezkoak eta bizikletak, garraio publikoa eta aparkalekua.
- Ibarako 16 urtetik gorako herritarren gehiengoak udalerritik kanpo egiten ditu lanerako (% 90,75) zein ikasketako (% 98,67) jarduerak, datua eguneratuta ez badago ere. Herritik kanpora geroz eta gehiago mugitu behar dira herritarrak lanera joateko.
- Ibarako turismoen parkeak goranzko joera erakusten du, 2010-2022 aldian %15an igo delarik.
- Biztanleko ibilgailu parkea 0,69 ibilgailu/biztanlekoa da 2022an, hau eskualdeko datuaren azpitik eta Gipuzkoako datuaren gainetik geratuz.
- Ibarako Udalak oinezkoentzako bideak egokitzen eta oinezkoentzako espazioak irabazteko lanean dihardu eta horren harira irisgarritasun plana lantzen ari da.
- Bestalde, hirigunea jada 30 km/h eremua dela aipatu behar da. Udalerririk ez du bidegorririk.
- Mugikortasun jasangarriaren gainean kontzientzia pizteko BIZIBIRA antolatzen da Tolosa eta Ibarako udalen artean.
- Ikastolak bere aldetik “Oinez eskolara” Ekimena antolatzen du.

4.



HELBURUA

Guztiontzako kalitatezko hezkuntza inklusiboa bermatzea eta etengabeko ikasketarako aukerak bultzatzea.

- Ibarako herritarren artean (10 urtetik gorakoak) Unibertsitate ikasketak burutakoen ehunekoak Gipuzkoa eta Erkidegoko ehunekoaren azpitik geratzen da.
- 2010-2021 urteen arteko bilakaerari begiratzen badiogu, gutxienez bigarren mailako hezkuntza gainditu duten 10 urte edo gehiago biztanleen ehunekoak gora egin duela ikusten da, % 15,5eko aldearekin. Gauza bera gertatzen da Lanbide ikasketak eta Unibertsitate ikasketak gainditu dituzten biztanleen ehunekoarekin ere joera gorakorra da % 5,6ean eta 9,4ean igoz hurrenez hurren.
- Ibarak adin tarte ezberdinetako herritarren hezkuntza bermatzen duen hezkuntza-eskaintza du: Ibarako Haurreskola – Kukumiku eta Uzturpe ikastola, haur hezkuntza, Lehen hezkuntza eta Bigarren hezkuntza eskaintzen dituen ikastetxea.
- Udalerrian izaera ezberdineko (kultura, kirola, ekonomikoa, berdintasuna) elkarte daude hezkuntza ez formala eskaini izan dutenak: Alurr dantza taldea, Txiribitu Astialdi taldea, Xepla jolas kultur elkarte, Hauspoa kultur elkarte, Sendi-Ekintza elkarte, Ibarako merkatarien elkarte, Zartada neska taldea, etab.
- 2024ean Ibarra Herri-Hezitzailea elkargunea eratu da Ibarako zenbait eragileekin, Oinherri sarean integratuta. Momentuz eragile hauek osatzen dute: Udala, Uzturpe Ikastola, osasun etxea, Nura Gizarte hezitzaileak, Gaztezulo, Zugatik Gugatik, UEMA, Galtzaundi eta Txiribitu.
- Eskolako Agenda 21a, gaur egun Eskolako 2030 Agenda izatera igaro den programan parte hartzen du Uzturpe ikastolak Eusko Jaurlaritzako Ingurugelaren laguntzarekin. Programan parte hartzen duen ikasleen kopuru osoak gora beherak izan ditu 2014-2022 urteen artean (422 ikasle ziren 2014an eta 488 izan dira 2022an)
- Zientzia eta teknologiaren sustapenerako formazioari dagokionean, Tolosaldea Garatzen agentziak eta Tolosaldeko Lanbide Heziketa Institutuak elkarlanean Tolosaldeko ZTIAM-STEAM Eskola mantendu dute 2023ko ekaina arte, Tolosako Udalaren laguntzarekin; ordea, 2023-2024 ikasturterako ez jarraipenik izango, ezin izan direlako horretarako baliabideak bermatu. a Garatzen eta Tolosako Udalaren laguntzarekin, I Elhuyar Zientzia Azoka ospatu zen eta ZTIAM Eskolako ikasleak parte hartu zuten. Bertan egon zen ere Algaloop enpresa, euren lana aurkezten.

5.



HELBURUA

Genero berdintasuna lortzea eta emakume guztiak ahalduntzea.

- Biztanleen errentaren gainean aldea dago bi generoen artean, 2021ean emakumeen errenta osoa gizonezkoena baino ia 10.382 € baxuagoa izan baitzen (% 38 baxuagoa). Ibarako biztanleen errenta osoaren bilakaera gorakorra da eta bi generoen arteko aldea 2011 urtetik murrizten joan dela ikusi daiteke, aldea % 45ekoa izatetik % 38koa izatera.
- Lanari dagokionean ere aldeak daude Ibarako emakume eta gizonen artean. 2021 urtean Ibaran % 4,4 langabetu gehiago izan dira emakumeen artean.
- Langabetuen bilakaerak beheranzko joera du 2016 urtetik bi generoentzako. Geroztik emakumeen langabezia-tasa gizonezkoena baino altuagoa da eta bi generoen arteko aldea zerbait txikitu bada ere, 2021ean oraindik 4,4ko aldea erakusten du.
- Ibarako Udalak 2019an indarkeria sexistari aurre egin nahi dioten emakumeen arreta egokia bermatuko duen koordinaziorako I. Protokoloa osatu zuen.
- 2011an Politika Feminista eta Aniztasuna saila sortu zen eta Ibarako I. Berdintasun Planaren diseinuari heltzeko apustua egin zen 2016an, 2017-2020 epe-tartean herriko politika feministak gidatuko zituen plan bat. Epe-tarte hori amaituta I. plan horren ebaluazioa eta II. Berdintasunerako planaren diseinuari ekin zitzaion 2021 hasieran. Ibarako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II. Plana (2021) onartu zen.
- Emakumeek udal gobernuan duen presentziari begiratzen badiogu, udal gobernuan ordezkarietza politikoa ez litzateke guztiz parekidea izango, 11 ordezkarietatik 4 emakumeak baitira, aldiz langilegoaren artean 26 langileetatik 17 emakumeak dira.
- Aipatu beharra dago Ibaran emakumeen elkarte bat dagoela martxan: Zartada neska taldea.
- Gizarte zerbitzuetatik laguntza ekonomikoak eskaintzen dira genero indarkeriaren biktimentzat: Emakumeentzako laguntza psikologiko programa, Abegi-etxeak
- “Ez zaude bakarrik” atala du Ibarako udal web guneak. Bertan, martxan den indarkeria matxistaren aurkako koordinazio protokoloa, modu oso laburrean dago azaldua, baita egoera ezberdinen aurrean nola jardun azaltzen duten hainbat baliabide.

6.



HELBURUA

Ur horniduran eta saneamenduan eragin nahi du, baliabide hidrikoen kontrola eta kudeaketa jorratuz.

- Ibarrako uraren ziklo osoaren kudeaketa Gipuzkoako Ur Kontsortzioak egiten du; Hau da, kontsortzioak beregain hartzen du uraren hornidura eta saneamendu zerbitzuarekin zerikusia duen guztia, baita kostuak eta zerbitzua ere.
- Ibarrako edateko ura Ibiurko urtegian biltzen da (Orendain-Baliarrain) eta Ibiurko Edateko Uren Tratamendurako Estazioan (Ikaztegieta) tratatu eta edangarri bihurtzen da ondoren udalerrira garraiatzeko.
- Udalerriko ur kontsumoari dagokionez, 2023 urtean guztira 226.588 m³ kontsumitu ziren Ibarra, etxebizitzetako nahiz gainerako sektoreetako kontsumoak kontuan hartuta.
- Azken 10 urteetako bilakaerari dagokionez, ur kontsumoa nahiko berdintsua izan da.
- Espero zitekeen moduan, urteko batezbesteko kontsumoa nabarmen handiagoa da etxebizitzak ez diren sektoreetan: industria, udal kontsumoa, nekazaritza, abeltzaintza etab.
- Ibarrako kontsumorako uren osasun kalifikazioa egokia da (0-3 mailan, 3koa).
- Saneamenduari dagokionez, estolderia sarearen bidez udalerriko urak Berrobi-Belauntza-Ibarra kolektorean biltzen dira eta Adunako Hondakin Uren Araztegira garraiatzen dira bertan garbitu, karga kutsatzailea maila egokietara jaitsi eta ondoren Berastegi ibaira isurtzeko.
- Ur ekosistemei dagokionez, Ur Agentziaren jarraipen plataforman jasotzen den informazioaren arabera (egoera ekologikoa bost kategoriatan sailkatzen da: oso ona, ona, moderatua, eskasa eta txarra), Ibaratik igarotzen den Zelai ibaiaren egoera ekologikoa “moderatua” moduan kalifikatuta dago. Egoera kimikoari dagokionez, berriz, “ona” da.
- Tarteka, kolektorean kontrolatu gabeko isurketak egon izan dira, bai Apatta poligonotik eratorriak baita Okobio poligonotik eratorriak ere.

7.



HELBURUA

Energia eskuragarria, segurua, iraunkorra eta modernoa izango dela bermatzea.

- Eskuragarri dauden azken datuen arabera (2022 urtea), udalerriko energia-kontsumoaren gehiengoa (% 55) garraioaren sektoreari dagokio, eta jarraian, zerbitzu (% 16), industria (% 15) eta etxebizitzaren (% 14) sektoreari.
- Erregaiak erreparatuz gero, gasolioa gailentzen da erregaien kontsumoaren % 51 ordezkatuz eta horren arrazoi nagusia diesela erabiltzen duten motordun ibilgailuen erregai kontsumoari lotuta dago. Jarraian, argindarra kokatuko litzateke (% 26) eta gero gas naturala (% 17). Azkenik, motordun ibilgailuek erabiltzen duten gasolina erregaia (% 4) eta zenbait etxebizitzetan eta zerbitzuetan berokuntzarako erabiltzen diren petrolioaren gas likidotuak (% 2).
- Ibarako udalerriko guztizko energia-kontsumoa 2019-2022 urte bitartekoa aztertu da eta bilakaera honetan energia-kontsumoak % 23,7ko murrizketa izan du.
- Ibarako etxebizitzetako kontsumo-energetikoaren bilakaeraren joera goranzkoa izan da. Erregai motak aztertuz, gehienbat gas naturala erabiltzen da, eta ondoren, argindarra.
- Azken urteetan kalifikazio energetikoa duten Ibarako etxebizitzaren kopurua hazi egin da.
- Udalerriko energia berriztagarrien instalazioen bidez ekoiztutako energia aztertuz (2022 urtean), energia berriztagarrien ekoizpenaren % 84 eguzki-energia fotovoltaiko instalazioetan ekoizten da. Badira maila txikiago batean biomasa bidez energia sortzeko instalazioak, eta maila oso txiki batean, eguzki-energia termikotik eta minieolikotik energia sortzen dituzten instalazioak.
- Ibarako udalerriko energia ekoizpena % 257,4 areagotu da 2019-2022 urte bitartean. Igoera hau batez ere eguzki-energia fotovoltaikoaren ondorioz eman da.
- Ibarako udalak 2020ko abenduan eguzki-energia fotovoltaikoaren instalazioa jarri zuen martxan kiroldegiko frontoiaren gaineko teilatuan. Oro har, urtetik urtera Ibarako udal energia berriztagarri ekoizpena areagotu egin da (% 28,5, zehazki).
- Udal energia-kontsumoaren azken datu eguneratuak aztertuz (2022 urtea), energia-kontsumo gehien udal eraikin eta instalazioek suposatzen dute (% 81,2), jarraian argiteria publikoak (% 18,3), eta azkenik, udal-flotak (% 0,5).
- Udal energia-kontsumoa energia-iturrien arabera erreparatuz, argindarra nagusitzen da erregai kontsumoaren % 62 ordezkatuz; kontsumo hauek, udal eraikin eta instalazioen eta argiteria publikoaren bidez egiten dira. Bigarren mailan, udal eraikin eta instalazioetan

egindako gas natural (% 37,5) erregai kontsumoa nagusitu da. Azkenik, udal-flotaren ondoriozko gasolio eta gasolina erregaien kontsumoak (% 0,4 eta % 0,1).

- Oro har, 2018 eta 2022 urte bitartean, Ibarrako udaleko guztizko energia-kontsumoak % 28,3ko jaitsiera izan du.
- Ibarrako Udalak 4/2019 Legearen (Euskadiko Jasangarritasun Energetikoari buruzko Legea) ezarritako obligazio gehienak betetzen ditu.
- Ibarrak 5.000 biztanle baino gutxiago dituenetz, 4/2029 Legeak eta 1/2024 Legeak (Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren Legea) ez dute udala klima- eta energia-plana izatera behartzen eta eskualde mailako ekintza-planak lantzeko aukera ematen du. Ildo honetan, eskualdeko garapen agentzia (Tolosaldea Garatzen) eskualdeko klima eta energia jasangarriaren plana lantzeko urratsak ematen hasi da.

8.



HELBURUA

Guztiontzako hazkunde jarraitua, inklusiboa eta jasangarria, enplegu betea eta produktiboa nahiz lan duina sustatzea.

- Ibarra industria eta zerbitzu-herria dela esan daiteke, batetik bertan kokatutako establezimenduen % 30 merkataritza, garraioa eta ostalaritzari lotutako establezimenduak dira, bestetik % 34 hartzen dute industria, energia eta saneamendu establezimenduak (% 19) eta eraikuntzarekin (% 15) zerikusia dutenak gehitzen baditugu.
- Establezimendu kopurua 2015-2024 urteen artean 21 establezimenduetan jaitsi da 269 establezimenduetatik 248ra igaroz (Iturria: Eustat).
- Udalak emandako azken datuen arabera IAEn alta emanda dauden jarduerak guztira 385 izan ziren 2024 urtean.
- Azken urteetan beraz Ibarren industria sektoreak indarra hartu du zerbitzuen aurrean. Industria sektorearen Balio Erantsi Gordina % 10,7 hazi da 2010-2021 artean, aldiz zerbitzuen sektoreko BEG-a, aldiz, % 9,5 jaitsi da.
- 16 urtetik gorako biztanle landunen sektorearen arabera banaketan biztanlegoaren gehiengoak zerbitzuen sektorean diharduela esan behar da, 2022an biztanle landunaren % 66,27 izanik. 2010 urtetik biztanle landunen % 9 gehiago da zerbitzuen sektorean diharduena, eta industria sektorean okupatuta daudenak % 6,3 gutxiago dira. Eraikuntzan eta lehen sektorean lan egiten dutenen ehunekoak ere behera egin dute.
- Ibarako merkataritza establezimendu txikien gainbehera nabarmena da, 2010-2022 urteen artean 1.000 biztanleko tasak 3,3 puntutan egin baitu behera, Gipuzkoako eta erkidegoko tasen behetik kokatuz.
- Ibarren kokaturiko ostalaritza-establezimenduen tasak ere behera egin du 2010 urtetik 0,6 puntuetan jaitsiz, Gipuzkoako eta EAEko (6,12) tasetatik behera.
- Ibarako Merkatarien elkartearen funtzio nagusia Ibarako merkatariei sostengua ematea da, besteak beste egon daitezkeen dirulaguntzen berri eman eta hauen kudeaketan laguntzen eta urtez urteko kanpainak prestatzen.
- Herritarren ekonomia-baliabideei begiratu gero, eta zehazki, errenta pertsonalari dagokionean, Ibarren gainontzeko lurraldeekiko egoera ekonomiko okerragoan kokatzen dela ikusten da, eskualdeko eta Gipuzkoako batz-bestekoeekin alderatuz 1.884 €-ko eta 2.537 €-ko aldea egonik, hurrenez hurren.

- Ibarrako 16 urte eta gehiagoko biztanleriaren okupazio-tasak bere gora-beherekin 1996-2022 aldian % 6,6 altuagoa da, 2022an % 48,2an kokatuz. Okupazio-tasa 2022 urtean, Gipuzkoako tasaren (% 52,65) eta EAeko tasaren (% 51,33) azpitik dago.
- 55-64 urte bitarteko biztanleen okupazio-tasaren bilakaera gorakorra da, 2022 urtean % 68,8an kokatuz eta beste lurraldeko tasen gainetik kokatzen da.
- Lanbiden erregistraturiko langabetuen bilakaera gorabeheratsua izan bada ere, joera beherakorra da, 2022an langabeak biztanleria aktiboaren % 7,6 izanik, Gipuzkoako tasaren (% 6,5) gainetik eta EAeko tasaren (% 7,9) azpitik kokatzen da Ibarrako langabezia-tasa.
- Tolosaldea Garatzen Tolosaldeko garapen agentzia da eta bere jardueren artean enpresak eta kalitateko enplegua sortzeko programak eskaintzen ditu.

9.

HELBURUA



Azpiegitura erresilienteak eraikitzea, industrializazio inklusiboa eta jasangarria bultzatzea, eta berrikuntza sustatzea.

- Ibarren 252 establezimendu daude eta horietako % 19tan industria sektoreari lotutako jarduerak egiten dira (47 establezimendu); Industria-enpresa horiek sortutako Balio Erantsi Gordinak Ibarren kokatuta dauden establezimendu guztiek sortutakoaren % 54,8 suposatu zuen 2021 urtean.
- Apatxa erreka industria gunean hainbat arlotako 60 enpresa daude kokatuta; Gune horretaz gain, Belauntzarekin muga egiten duen Okobio poligonoan ere, Ibarren eremuan dagoen enpresa bat kokatzen da.
- Ibarren establezimendu guztien erdia baino gehiago hiru sektore nagusiri dagokie: merkataritza, garraioa eta ostalaritza (% 30), industria, energia eta saneamendua (% 19) eta eraikuntza (% 15). Aipatzekoa da establezimendu gehien hartzen dituen sektorea merkataritza, garraioa eta ostalaritzarena dela.
- Industria-jarduerei lotutako establezimendu gehien 2019an egon ziren (54 establezimendu), urte hartaz geroztik, ordea, kopuruak behera egin zuen (47 establezimendu 2023an).
- Nabarmenezkoa da metalurgia azpisektoreak Ibarren duen garrantzia; Makinariaren eta altzarien fabrikazio industriak ere pisu handia hartzen du.
- Tolosaldea Garatzen Garapen Agentziako enpresen sailak hainbat jarduera eta proiektu burutzen ditu eskualdeko udalerrietan.
- Industria guneetan kokatutako Ibarren 61 enpresek jarduera sailkatuaren lizentzia edo aurrekomunikazioa eskuratu behar izan dute Ibarren Udalaren eskutik. Bestalde, Ingurumen Baimen Bateratua eskuratu behar izan duen enpresa bakar bat dago, metalurgia sektorekoa.



- GAZTEZULO da Ibarako Haur, Nerabe eta Gazteen Partehartzea Sustatzeko zerbitzua. Ibarako PSZ (Haur, Nerabe eta Gazteen Partehartzea Sustatzeko Zerbitzua) Gipuzkoako Udalek Foru Aldundiarekin batera osatzen duten Haur, Nerabe eta Gazteen Sustapenerako “GAZTEMATIKA” deritzon sare publikoko kide da.
- Udalak, Gizarte zerbitzuetatik familia, adin txikiko eta gazteei zuzenduriko hainbat zerbitzu eskaintzen ditu.
- 2022an eskuhartze sozioedukatiboa eta psikosozialeko zerbitzua martxan jarri da eta 2023an 5 familia artatu dituzte (24 lagun).
- Etorkizunean, zahartze eta mendekotasun indizeak nabarmen haztea espero da eta honek hainbat ondorio ekarriko ditu. Erronka hauei aurrera egiteko sortzen eta garatzen dira programa eta zerbitzu ezberdinak. Eguneko zentrorik edo egoitzarik ez dago Ibarren. Adinekoen elkargune bakarra Bizi-nahi erretiratuen elkarte da. Bestalde, Garagune zentroa dago, adimen urria duten pertsonen bideratuta. Etxaniz zentro pribatua, monjenzako egoitza da.
- Adinekoen behar berriei erantzuteko hainbat programa hainbat jardura eskaintzen dira udaletik: “Ibarra martxan” ekimena eta bakarrik bizi diren pertsonen zuzenduriko “Adinkide” programa.
- Dibertsitate funtzionala duten pertsonen dagokienez, gizarte-ekintzaren arloan tramitazio mailako zerbitzuak eskaintzen dira.
- Goienetxe fundazioko Garagune zentroetako bat Ibarren kokatzen da. Bertan adimen desgaitasuna duten hamabi pertsona daude, eta gizarteko parte aktibo izatea da beraien helburua.
- Ibarren biztanleria atzerritarrak gora egin du azken urteetan eta gaur egun biztanleriaren % 9a hartzen du. Ehuneko hau erkidegoa eta Gipuzkoako datuen pare dago.
- Udalak ez du bere horretan inmigrazio sailik. Aldiz, Tolosaldea Garatzenen Migrazioa eta Aniztasuna saila du.

11.



HELBURUA

Hiriak eta giza-kokaguneak inklusiboak, seguruak, erresilienteak eta jasangarriak lortzea.

- Ibarrako udalerrriak 513 hektarea hartzen ditu denera.
- Ibarrako lurzorua zati handiena (% 87) lurzoru urbanizaezina da; Azalera horren zati handiena basoak, babes bereziko guneak eta trantsiziozko landa-paisaia dira.
- Egoitzarako lurzoruak eremu txiki eta kontzentratua hartzen du (Izaskun inguruko eremua salbu) eta ekonomia jardueretarako lurzoruak Apattaerreka industria gunean soilik topatu daitezke.
- Urte luzetako prozesuaren ostean Ibarrako Hiri Antolamenduko Plan Orokorrari behin betiko onespina 2018ko uztailan eman zitzaion. Bertan jasotzen denez, Ibarrako udalerrria 15 hirigintza eremutan banatzen da. Eremu horietako bakoitzean, halaber, hainbat zona identifikatzen dira ezaugarrien arabera.
- Egoitzarako lurzoruak 19,03 hektarea hartzen ditu Ibarran. Hiriko biztanle gehienak herrigunean pilatzen dira, % 95,5 hain zuzen; biztanleria sakabanatua, beraz, % 4,5 da.
- Egoitza lurzoru batez beste 103,37 etxebizitza daude hektareako, horrek biztanleria dentsitatea handia izatea dakar, Ibarran batez beste 7,96 biztanle bizi baitira hektarea bakoitzean.
- Azken 8 urteetan familia-etxebizitza kopuruak gora egin du orokorrean, baina beherakada nabarmena izan zen 2021 eta 2022 urteen artean (1.921tik 1.902ra).
- Ibarrako Udalak 2009an Mugikortasun Jasangarriaren diagnostikoa eta plana idatzi zituen eta orduz geroztik bertan jasotako ekintzak aurrera eramaten joan da.
- Garraio publikoari dagokionez, Ibarran hiriarteko 5 linea eskaintzen dira (TO02, TO04, TO06, TO29E eta TO42G), baina, Tolosarekin daukan gertutasunaren ondorioz, tren linea (RENFE) eta autobus linea gehiago ere badituzte Ibarrako herritarrek.
- 2009ko diagnostikoa egitean Ibarrako Udalerrian 2.120 aparkaleku kontabilizatu ziren, horien % 42a galtzadan egonik eta % 58a galtzadatik kanpo. Orduz geroztik udalak aparkaleku erregulatuaren sistema (TAO zerbitzua) ezarri zuen eta Ibarrako herritarrek TAO/OTA guneetan autoa aparkatu ahal izateko, txartela eskuratzeko eskaera-orria bete, ordainketa burutu eta udaletxean aurkeztu behar dute.
- Udalerriko azaleraren % 22,28 babes bereziko eremuak dira. Baso-azalera udalerriko azalera totalaren % 39,18 da eta horien % 9 herri onurako mendia da. Gainera, udalerrian lorategi eta eremu berdeek 33.401 m²-ko azalera hartzen dute.

- Ibarra badaude Uholde Arrisku Handiko Eremu gisa sailkatutako eremuak ere, bereziki Zelai ibaia, herrigunetik igarotzen den tokian kokatuta dago.
- Orokorrean Ibarako eremuan dagoen baso-suteen arriskua baxua da. Hala ere, gunek txiki batzuetan arrisku hori “altua” edo “oso altua” bezala kalifikatuta dago.
- Arrisku teknologikoari dagokionez, errepide bidez salgai arriskutsuak garraiatzeagatik arriskua aztertzen da HAPOan.
- Eusko Jaurlaritzaren Airearen Kalitatea Kontrolatzeko sarearen estazio hurbilena Tolosako erdialdean kokatuta dago, Ibaratik gertu. Estazio horrek ematen dituen datuen arabera, 2024ko orduen % 52,1ean Airearen Kalitatearen Indizea “OSO ONA” izan da eta % 45ean “ONA”.
- Ibarako Udalak, HAPOaren baitan, zarataren azterlan bat ere egin zuen. Azterlan horretan eguneko, arratsaldeko eta gaueko zarataren mapak jasotzen dira eta ondorioztatzen da “Elduaren Bekoa” eta “Malkorrenea-Eskuzarre” azpieroemuetan neurriak hartu beharko lirakeela, legeak ezartzen dituen zarata-mailak gainditzen dituztelako zenbait kasutan.
- Ibarako HAPOan balio berezia izateagatik katalogatutako eraikuntza eta elementuen mapa eta zerrenda jasotzen da.

12.

HELBURUA



Kontsumo eta ekoizpen modalitate jasangarriak bermatzea.

- Ibarren batez beste 371 kg hondakin sortu ziren biztanleko 2023 urtean.
- 2016-2023 aldirian hondakinen sorrerak gora egin du Ibarren, nahiz eta azken urteetan pixkanaka beheranzko joera hartzen ari den.
- Ibarren 2023an gehien sortu ziren hondakinak errefusa eta organikoa izan ziren, biak maila berean.
- 2014tik martxan zegoen atez ateko bilketa sistema edukiontzi bidezko bilketa sistemarengatik ordezkatu zen 2017an. Sistema horren baitan organikoaren eta errefusaren edukiontzietan zerraila ezarri zen, herritarrek txartelaren bidez bakarrik ireki ahal izateko. 2020 urtean COVID-19 pandemia iritsi zenean errefusaren eta organikoaren edukiontziak ireki egin ziren (txartelaren beharrik gabe ireki ahal izateko) eta gaur egun horrela jarraitzen dute. Beraz, gaur egun indarrean dagoen hondakinen ordenantza ez dago eguneratuta, txartel bidezko irekiera sistemari egiten dio erreferentzia.
- Ibarako merkataritza, etxebizitza eta zerbitzuen sektoreko hondakinak Tolosaldeko Mankomunitatearen bidez bildu, garraiatu eta tratatzen dira. Honako frakzioak jasotzen dira Ibarako udalerrian: errefusa, beira, biohondakina, ontzi arinak, papera, arropa, landare olioia eta kafe kapsulak.
- Landa eremuko etxebizitzaren kasuan, ekarpen guneak erabiltzen dira eta merkataritza eta industriakoak atez ate jasotzen dira dagokion toki eta orduan.
- Ibarako gaikako bilketaren beheranzko joera 2019 urteaz geroztik izan da; lau urtetan ia 6 puntutan jaitsi da gaikako bilketaren ehunekoa.
- Etxebizitza eta komertzioetako gaika bildutako frakzioen artean, organikoa da gehien bildu zena 2023 urtean (%44) eta ondoren ontzi arinak (%21) eta papera eta kartoia (%18), nahiko maila beretsuan.
- Ibarren 7 auzokonpostagune daude gaur egun. Datuen azkeneko eguneraketa 2019koa da eta horren arabera 74 pertsonak egiten zuten auzokonposta. Autokonpostari dagokionez, 4 dira udalaren erregistroan dauden familiak.
- 2023 urteko datuen arabera industrietan jasotzen diren hondakinen ia erdia errefusa da.

13.



HELBURUA

Klima-aldaketari eta haren ondorioei aurre egiteko premiazko neurriak hartzea.

- 2019tik 2022 urtera udalerriko BEG isuriak % 31 murriztu dira.
- Garraio sektorea da udalerriko BEG isurien erantzule nagusia (2022 urtean % 61,7) eta zerbitzuak (% 12,8), etxebizitzak (% 11,2), industria (% 9,5), 1. sektorea (% 4,7) eta etxebizitza eta saltokietan bildutako hondakinak (% 0,1).
- Erreferentzia-aldia kontuan hartuta (1971-2000), inpaktu-kateen artean klima-aldaketaren aurreko arrisku handien erakutsi duen inpaktu-katea “ibai-uholdeen inpaktua hiri-ingurunean” izan da, jarraian, “lehortek handitzearen inpaktua jarduera ekonomikoetan - nekazaritza eta abeltzaintza”, eta azkenik, “bero-boladen inpaktua giza osasunean”.
- Ibarren “ibai-uholdeen inpaktua hiri-ingurunean” inpaktu-katearen arriskua areagotzea aurreikusten da. Arriskua osatzen duten osagai-indizeak aztertuz, Ibarren ondorio negatiboak eragin ditzaketen joera edo gertaera klimatikoak (euri jasen mehatxua) areagotu egingo dira, baina udalerrria eremu nahiko egokian kokatuta egongo da eta eragin negatiboak izateko joera baxua izango du.
- Baita ere “lehortek handitzearen inpaktua jarduera ekonomikoetan - nekazaritza eta abeltzaintza” inpaktu-katearen arriskua areagotzea aurreikusten da. Arriskua osatzen duten osagai-indizeak aztertuz, Ibarra lehorteen inpaktua jasateko eremuan kokatuta egongo da, baina eragin negatiboak izateko joera baxuagoa erakutsiko du. Ondorio negatiboak ekarri ditzakeen gertaera klimatikoak areagotzea (nagusiki prezipitazio eskasia) espero den arren, mehatxu honen pisua txikia izango da.
- Arrisku-indize baxuen izan duen inpaktu-katea Ibarren “bero-boladen inpaktua giza osasunean” izan da. Arriskua nabarmen areagotzea aurreikusten da. Arriskua osatzen duten osagai-indizeen aldetik, tenperaturen igoeragatik bero boladen mehatxua nabarmen handituko dela iragartzen da. Ibarrek bero boladen ondorioz giza osasunean eragin negatiboak jasateko joera erakutsiko du, eta aldi berean, udalerrria ondorio negatibo hauek nahiko egoki igarotzeko eremuan kokatuta egongo da.
- Klima-aldaketak Ibarren sortzen dituen ondorioei dagokionez, “bero-boladen inpaktua giza osasunean” inpaktu-katearen ondorioak dira nagusienak, hau da, nahiz eta arrisku gutxieneko inpaktu-katea izan eragin negatiboak jasateko joera gehien erakutsi duen inpaktu-katea da. Jarraian, “lehortek handitzearen inpaktua jarduera ekonomikoetan - nekazaritza eta abeltzaintza” inpaktu-kateak ondorioak eragingo ditu udalerrian. Azkenik, arrisku gehien duen baina aldi berean eragin negatiboak izateko joera urriena azaltzen duen “ibai-uholdeen inpaktua hiri-ingurunean” inpaktu-kateak eragin ditu ondorio gutxienean udalerrian.

15.



HELBURUA

Basoak modu iraunkorrean kudeatzea, basamortutzearen aurka borrokatzea, lurren degradazioa gelditzea eta biodibertsitatearen galera ekiditea.

- Ibarra azaleraren zati handienak belardi eta labore-lur atlantiarrek, baso landaketek eta basoek okupatzen dute, Eusko Jaurlaritzako GeoEuskadiko landaredi-maparen arabera (2007).
- Nagusitzen diren lur erabilerak belardiak (% 33,9), baso-landaketak (% 20,2), basoak (% 18,3) eta sastrakak (8,7) dira, 2021eko EAeko baso-maparen arabera.
- Udalerriko landaretzan topa daitezkeen zehaztutako espezieak aztertuz, landare koniferoen artean *Pinus radiata* eta *Larix spp.* nagusitzen dira, eta hostozabalen artean, baso misto atlantiarra eta *Quercus robur*.
- Gizakion eraginik ez balego, udalerrian modu naturalean nagusiki basoa garatuko litzateke. Ibarra landaredia potentziala ondorengo basoek osatuko lukete: harizti azidofiloa, harizti-baso misto atlantikoa, eta neurri txikiago batean, baita haltzadi kantauriarra ere.
- Udalerriko azalera osoaren % 86,9 lurzoru urbanizaezin moduan kalifikatuta dago.
- Babes bereziko eremuak Ibarra udalerriko azalera osoaren % 22,3 eta lurzoru urbanizaezinaren % 26 hartzen ditu.
- Batasunaren Intereseko Habitategi dagokionez Ibarra hainbat intereseko habitat topatu dira.
- Kutsatuta egon daitezkeen lurzoruak Apatza Erreka industria gunean, hiri-eremuko puntu batzuetan, eta baita ere, Ibarra kokatuta dagoen Belauntzako Okobio industria guneke eremuan aurkitu daitezke.
- Naturaren ezagutza eta herritarren sentsibilizazioa bultzatzeko hainbat proiektu sustatu ditu udalak: Ibarra Piparraren bidea egokitzea eta Bista Ona lursaila (01-745) errekueratzea.

16.



HELBURUA

Bakea, justizia eta erakunde sendoak.

- Herritarren segurtasuna da ongizatearen oinarrietako bat. Ibarra herri segurua dela esan daiteke, bertan erregistratutako delitu-indizea mila biztanleko 29,6 delitura iritsi baitzen 2022 urtean, bilakaeraren joera ordea gorakorra da 2003-2022 artean.
- Trafiko istripuek ere behera egin dute 2003-2020 aldian, 2020an mila biztanleko 2,1 istripu erregistratu zirelarik, erkidego eta Gipuzkoako datuen azpitik kokatuz.
- Ibarako udal web gunean gardentasunaren ataria aurki daiteke eta bertan, besteak beste, udal organo eta mahai ezberdinei buruzkoak, iruzurraren aurkako plana eta dirulaguntzei buruzkoak azaltzen dira.
- Gobernu batzordea alkateak eta beste hiru zinegotzik osatzen dute eta udaleko zuzendaritza politikoa izanik. Udalbatza 11 zinegotzik osatzen dute eta bi hilabetetik behin elkartzen da.
- Udalaren antolaketarako eta udal sailen arteko koordinaziorako eta barne partaidetzarako udal gobernu 4 batzordeetan banaturik dago.
- Herritarren partaidetza ahalbideratzen duten partehartze eta kontsulta organo irekiak antolatu ohi dira gaiak horrela eskatuta, esaterako: Ibarra N1 bariante azpiko zutabea margotzeko irudi aukeraketa prozesua (2022) eta Kultur dinamika hauspotzen herri galdeketa (2023).
- Azken urteetan auzokako bilerak egiten dira udaletik. Bilera hauen helburua, auzo bakoitzeko bizilagunengana gerturatu eta beraien beharrak entzun eta udalaren proiektuen berri ematea da.
- Ibarrek elkarte-sare oparoa du, guztira 25 elkarte daude (Ibarako Udalaren web gunean jasotakoak, ikastolako guraso elkarte gehituta) Eusko Jaurlaritzako elkarten erregistroan 31 erregistraturik daude. Elkarteek herritar dinamiko eta boluntario asko mugitzen eta aktibatzen dituztela esan daiteke eta euren ekarpenaren bidez, Ibarra aberasten dute elkartegintza sustatuz.
- Elkarten gehiengoa elkarte kulturalak eta kirol esparrukoak dira (bi elkarte moten artean elkarten ia % 60a hartzen dute).

17.



HELBURUA

Ezarpen-baliabideak sendotzea eta Garapen Jasangarrirako Munduko Ituna biziberritzea.

- Ibarako Udala Euskal Fondoaren parte da, eta, beraz, bere helburuak partekatzen ditu eta bere zuzendaritza-batzordeak onartutako urteko proiektuak babestu eta finantzatzen ditu.
- Elkarteen udal erregistroan garapenerako lankidetzan ari den elkarteetako bat Ibaratik Misio Taldea. Besteak beste, abenduan bigarren eskuko azoka solidarioa antolatu ohi du.
- Aipatu behar da Udalak kooperazio sozial eta boluntarioen programa duela eta bertan jasotakoaren arabera, udal aurrekontuaren % 0,58 garapen bidean dauden herrialdeekiko kooperaziora bideratzen dela.
- Azken urteetan udal aurrekontuan izan den lankidetzarako proiektuekin zerikusia duen partida azken 2 urteetan handitu egin da (2019an 17.000€ eta 2024an 25.000€).

18.



HELBURUA

Hizkuntza eta kultura aniztasunaren bermea.

- Ibarrako Udalaren kultura sailaren helburu nagusia herriko erakunde, elkarte, talde, eragile eta norbanakoekin batera, Ibarren kultura alorrean herritartasun aktiboa eraiki, sustatzea eta bultzatzea da.
- Ibarrek, kultura zerbitzuak eskaintzeko, ekitaldi eta emanaldiak burutzeko, musika zein arte plastikoetako formakuntzarako eta arte diziplina ezberdinetako praktikarako eta sormenerako espazio eta ekipamenduak ditu: Kultur etxea, udal liburutegia, hainbat lokal kultural eta Txontxo Udal lokala.
- 2020-2023 aldian areto nagusiaren erabilera ia bikoiztu dela esan daiteke, bai egun kopuruan baita ere erabiltzaile kopuruan.
- Areto nagusian 2023an antolatutako ekitaldi mota nagusia batzarrak izan dira (% 26), jarraian bideo emanaldiak (% 14) erakusketak (% 12) eta musika emanaldiak (% 10).
- Bilera gelen erabilera ere ia bikoiztu egin da 2020-2023 aldian.
- Kultur lantegi edo tailerrei dagokionean, 2020-2023 aldian erabiltzaile kopuruak gora egin du, 41etik 76 igaroaz.
- Ibarrako Udaleko Kultura Sailak irabazi asmorik gabeko entitate eta elkarteei azpiegiturak, materialak eta urteko egitarau eta jardueretarako baliabide ekonomikoak eskaintzen dizkie.
- Aspaldiko urteetan euskara kalean zenbat erabiltzen den eta nork edo nortzuk gehien erabiltzen duten jakiteko kale-neurketak egiten ditu Ibarrako Udalak, Galtzaundi elkartearen laguntzarekin.
- 2023ko neurketan jaso den euskara erabilera %52,30koa da; alegia, kalean neurtu diren 100 hiztunetatik 52 pasatxo entzun dira euskaraz, %43,40 gazteleraz eta %4,30 beste hizkuntza batzuetan.
- EUSTATen datuen arabera 2022. urtean Ibarrek 4.104 biztanle zituen, eta haietatik %68,53 euskaldunak ziren.
- 2023ko neurketan gazteak dira euskara gehien erabiltzen dutenak % 72ko erabilerarekin; jarraian haurrak % 67arekin; heldu-gazteek jarraitzen diete % 50arekin; heldu-nagusiak dira ondoren % 39rekin eta azkenik adinekoak % 37ko erabilerarekin.
- Kalean euskara gehiago erabiltzen da etxean baino. Aitortutako datuen arabera, etxeen % 42 pasatxoan egiten da euskaraz, eta kaleko datuetan % 50aren bueltan dabil azken urteetan.

- Ibarako Udalaren Euskara sailetik euskararen ezagutza eta erabilera sustatzea eta indartzea bultzatzen da, bai udal administrazioan zein herri mailan. Euskara sailetik hainbat zerbitzu bideratzen dira: Itzulpen- eta zuzenketa-zerbitzua, euskara ikasteko dirulaguntzak, etab.
- Ibarako Udalak Udalerrian Euskararen Erabilera Sustatu eta Normalizatzeko Arauak ematen dituen UDAL ORDENANTZA du.
- Euskararen erabilera sustatzeko plana adostu zen 2023an, Ibarako Udala, udaleko euskara teknikariak, Galtzaundik eta UEMAK elkarlanari esker. Arlo guztien artean 2023an lehentasun berezia eman zaie udal barruko erabilera plan berria diseinatzeari, ELE sistematizatzeari, kanpotik datozeinei hizkuntza harrera egokia egiteari eta hezkuntza komunitatean zein aisialdian eragiteari.
- Udaleko Euskara sailak euskara sustatzeko hainbat ekimen bideratzen ditu Ibarako haur, gazte eta helduei zuzenduta, adib: Galtzakomik komiki lehiaketa.
- Etorkizunean udalerrira etorkinak iristen jarraituko dutela aurreikusten denez, garrantzitsua da atzeritarrak ere euskarara gerturatzea hizkuntza aniztasun hori oinarri hartuta.
- Tolosaldea garatzeneko bizikidetza saila atzerriko etorkinen harreraz eta hauen gizarteratzeaz arduratzen da. Kulturartekotasuna osatzen duten printzipioak aintzat hartuta, etorri berrien hizkuntza aitortu, eta euskarara gerturatzeko hainbat jarduera egiten dira harrera zerbitzuaren barnean.